

EUSKAL FONDOA

Estatutuak

EUSKAL FONDOA - ASOCIACION DE ENTIDADES LOCALES VASCAS
COOPERANTES

I. ATALA
IZENA, HELBURUAK, HELBIDEA
ETA LURRALDE-EREMUA

- 1. art.** EUSKAL FONDOA - Asociación de Entidades Locales Vascas Cooperantes izenez, eta Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 12ko 3/1988 Legeak xedatutakoaren arabera, irabazteko asmorik gabeko asoziazioa eratu da. Bertan Tokiko Gorporazioak eta euskal eremuko udal-izaeradun beste hainbat Erakunde bildu dira, honako estatutu hauetan zehazten diren helburuak lortzeko asmoz.
- 2. art.** Asoziazioak nortasun judiriko propio eta independientea du, baita erabateko gaitasun juridikoa ere. Bere mugak legeek eta honako Estatutu hauek ezarritakoak dira.
- 3. art.** Asoziazioaren helburuak ondorengoak dira:
 - a)** Garapen bidean herriekin lankidetzaz lagundu, garapen ekonomiko edo sozialerako edota sentsibilizaziorako egitasmo eta programak sustatuz, finantzatuz edo kudeatuz.
 - b)** Elkarlan deszentralizatuan Erakunde Lokaleen partehartzea bultzatu eta beraien arteko koordinazioa indartu.
 - c)** Garapenerako Lankidetzaz eta nazioarteko harremanei buruzko aholkularitza egin Erakunde Lokaleei.
 - d)** Garapen bidean diren herrien garapen sostengarria bultzako duten egitasmo eta programak lagundu, eta kasu kudeatu. Hau burutzeko irizpideak, berdintasuna eta lankidetzaz izango dira, hala nola kulturekiko eta komunitate bakoitzaren nortasunarekiko errespetua ere.
 - e)** Kanpaina eta informazio egokien bidez, Garapen bidean diren herriekiko elkarlan egitasmoetan hiritarrek parte har dezatela eragin.
 - f)** Erakunde Lokalen eta GGKE, elkartasun talde eta garapenerako lankidetzazari lotutako beste instituzio edo erakundeen arteko harremanak eta elkarkidetzaz piztu.
 - g)** Iparra-Hegoa harremanei buruzko eta garapen gaien inguruko informazioa lantzen eta hedatzen lagundu; bakarrik edota beste

erakunde batzuekin batera topaketak, hitzaldiak, ikastaroak, mintegiak, kongresuak eta abar burutu eta sustatu.

- h)** Instituzio ofizial, entitate eta asoziazioen ahaleginak sustatu eta bultzatu, horrela nazioarteko ordenu ekonomiko berriaren sustapenerako iritzi-giro egokia landu ahal izateko.
- i)** Hegoaldeko herrialdeetan giza-eskubideek jasaten dituzten eraso larri guztiak Euskal Herritik salatuko dituen ahots efiko kolektiboa izan, ezarririk dauden legezko bideen medioz ordezkaritza politikoaren edozein esparrutan elkartasunaren eta elkarlanaren alde nolana hiko lege- edo erabaki-proposamen aurkeztu ahal izango duena.

4. art. Asoziazioaren egoitza, Goikoa Jauregia, Igentea Kalea 6, 20003 Donostia helbidean dago, baina Batzarrak helbide hori aldatzeko ahalmena izango du.

Bere helburuak garatzeko, Asoziazioak beste toki batzuetan ere establezimendu edo egoitza gehiago sor ditzake, baita atzerrian ere, Batzarrak hala erabakitzen duenean.

5. art. Euskal Fondoak iharduteko lurralde-eremuak Euskal Herri osoa hartzen du, eta helburu antzekoak dituzten nazio-, Europa edo mundu-mailako beste eremu batzuetako entitateekin konfedera daiteke.

6. art. Asoziazioa honako estatutu hauen bidez eraenduko da, beti ere Batzar Orokorrak onartu ondoren, edo honen ezean, asoziazioei buruzko legeriak.

II. ATALA

GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK

7. art. Asoziazioaren organoak ondokoak izango dira:

- a)** Batzar Orokorra
- b)** Zuzendaritza-Batzordea

Batzar Okorraz:

- 8. art.** Batzar Orokorra da EUSKAL FONDOA - Asociación de Entidades Locales Vascas Cooperantes delakoaren organo gorena. Asoziazioko kide guztiek osatzen dute, eta ohiko edo ez-ohiko izaera eduki dezake.
- 9. art.** Ohiko Batzar Orokorra gutxienez urtean behin bilduko da eta lehen seihilekoaren zehar. Ez-ohiko Batzar Orokorra, egoerak hala eskatzen duenean bilduko da, Lehendakariaren iritziz, Zuzendaritzaren erabakiz, edota kideen heren batek idatziz proposatzen duenean, bertan hitz egin beharreko gaien adierazpen zehatzarekin batera.
- 10. art.** Ohiko zein ez-ohiko Batzar Orokorren deialdiak idatziz egingo dira, eta bilkuraren tokia, eguna eta ordua, eta Idazkariak finkatutako gai-zerrenda adierazi beharko dira. Deialdiaren eta bilkura-egunaren artean, gutxienez 10 eguneko tarteak egon beharko du.
- 11. art.** Ohiko zein ez-ohiko Batzar Orokorrek behar bezala eratzeko, lehen deialdian boto eskubidea duten kideen erdiak gehi batek egon beharko du, eta bigarren deialdian, kideen herenak. Lehen eta bigarren deialdiaren artean, gutxienez 30 minutuko denbora-tarteak egon beharko du.
- 12. art.** Legalki eraturako Batzar Orokorren erabakiak, ahal bada kideen adostasunez hartuak izatera joko da. Bozketa egongo balitz, erabakiak bildutakoen botoen gehiengo soilez hartuko dira Ohiko batzarra denean, eta 2/3eko gehiengo Ez-ohikoa denean.
- 13. art.** Legearen eta honako estatutu hauen aurka ez doazen legalki eraturako Batzar Orokorren erabakiak, kide guztiek bete beharko dituzte. Hauek Akta-Liburuan jasoko dira eta Zuzendaritza Batzordeko Lehendakariak eta Idazkariak sinatu beharko dute bertan.
- 14. art.** Ohiko zein Ez-ohiko Batzar Orokorrek batzarkideen artean aukeratutako Lehendakari bat izango dute mahaiburua.
- 15. art.** Ohiko Batzar Orokorrek honako aginpideak izango ditu:
- a)** Kide berrien alta berretsi eta asoziazioa uzten dutenei baja eman.
 - b)** Dagokion epealdiari buruz Zuzendaritza-Batzordeak aurkeztutako txostena onartu, hala nola Batzorde honek proposatutako iharduketa-ildoak ere.
 - c)** Aurreko ekitaldiko balantze ekonomikoa eta kontu orokorrak onartu.

- d) Hurrengo ekitaldirako aurrekontua onartu.
- e) Zuzendaritza-Batzordeak aurkezten duen elkarlanerako egitasmo eta programak onartu.
- f) Asoziazioako kide-tza-kuotak finkatu.
- g) 4 urteko agintaldirako Zuzendaritza-Batzordearen karguak aukeratu eta Batzorde horren kudeaketa kontrolatu.
- h) Asoziazioaren interesetan eragina duten erabaki garrantzitsuak onartu.
- i) Beste erakunde batzuekiko federazioa edo konfederazioa onartu, edota erakunde horiekiko loturak hautsi.
- j) Asoziazioaren helburuak bete daitezzen zaindu.

16. art. Ez-ohiko Batzar Orokorrek honako aginpideak izango ditu:

- a) Estatutuak eraldatu eta berritu.
- b) Hala badagokio, Asoziazioa desegin.
- c) Zuzendaritza Batzordeko karguak hautatu, baldin eta aurrekoaren kargu-uzte kolektiboa emango balitz.
- d) Zuzendaritza-Batzordeak edota kideen heren batek proposatutako beste edozein kuestio.

Zuzendaritza-Batzordeaz

17. art.

- a) Asoziazioaren kudeaketa arrunta Zuzendaritza-Batzordearen esku egongo da, eta hau izango da asoziazioa zuzendu eta administratzeko arduraduna, beti ere Batzarraren norabideen arabera eta honen kontrolpean. Honako kargu hauek osatzen dute: Lehendakariak, Lehendakariordeak, Idazkariak, Diruzainak eta 11 bokalek.
- b) Karguak udal-hauteskundearen ondoren izendatuko dira, Udalen eraketaren hurrengo lau hilabeteko epean, horretarako deitutako Ez-ohiko Batzar Orokorrean.

- c) Zuzendaritza-Batzordearen bilkuretara, gonbidatu gisa, hitza bai baina botorik gabe joatea izango dute, Batzordearen iritziz horretarako baldintzak betetzen dituzten pertsona zein entitate laguntzaileek.

18. art.

- a) Urtearen buruan Zuzendaritza-Batzordean karguren bat hutsik geratuko balitz, hurrengo Batzar Orokorra egin bitartean Batzordeak berak bete lezake kargu hori behin-behinekotasunez, bertako kide baten bitartez. Batzar Orokorrak kargu berria aukeratuko du, eta hau, Zuzendaritza Batzorde osoa berri artekoa izango da.
- b) Zuzendaritza Batzordeko kideen erdiak gehi batek kargua utzi edo dimitituko balu, hautaketa berri bati ekingo litzaioke, bereziki horretarako deituriko Ez-ohiko Batzar Orokorren bidez (16 c art.). Kargua utzi duen Zuzendaritza-Batzordeak behin-behinekotasunez jarraitu beharko luke hurrengo Ez-ohiko Batzar Orokorra burutu arte.

19. art.

- a) Zuzendaritza-Batzordea gutxienez bi hilabetez behin bilduko da, Lehendakariak aldezturik deitu ondoren. Deialdi hau gutxienez 5 egun aurretik egingo da, eta bertan bilkuraren gai-zerrenda adierazi beharko da.
- b) Zuzendaritza-Batzordea halaber, kideen heren batek hala eskatuta bilduko da ere. Honelakoetan, Lehendakariak eskaria jaso eta hurrengo zazpi eguneko epean egin beharko du deialdia eta 30 egunen barne burutuko beharko da.

- 20. art.** Zuzendaritza-Batzordea behar bezala eratzeko, bilkurara gutxienez kideen erdiak gehi batek agertu beharko du, Lehendakaria eta Idazkaria barne.

Erabakiak Akta-Liburuan jasoko dira, eta bertan Idazkariak eta Lehendakariak sinatu beharko dute.

- 21. art.** Zuzendaritza-Batzordeak egiteko hauek izango ditu:

- a) Estatutuak aplikatu eta interpretatu.
- b) Ohiko zein Ez-ohiko Batzar Orokorretan hartutako erabakiak betearazi.

- c) Ekitaldiko txostena egin, eta onetsi nahiz ezetsiak izateko, Batzarrari aurkeztu beharreko iharduketa-ildoak proposatu.
- d) Kontuak eraman, balantzea formalizatu eta Batzarrean bozketara eramateko aurrekontua burutu.
- e) Asoziazioaren iharduerarako beharrezkoak diren kontratu, hitzarmen eta bestelako ekintzak egin.
- f) Lankidetzarako egitasmo eta programa guztietatik, hala dagokionean, Batzar Orokorraren onespena jaso behar dutenak aukeratu eta onartzen direnen jarraipena egin.
- g) Asoziazioaren izenean, Zuzendaritza-Batzordeak erabakitzen dituen ekintzak burutu.
- h) Kreditu-erakunde edo Bankuetan, kontu korronteak ireki, mantendu edo itxi.
- i) Kide berrien sarrera-eskariak aztertu, eta hala badagokio, alta eman (15 a art.).
- j) Batzar Orokorrari dagozkion premiazko izaeradun gaiak ebatzi, nahiz eta hurrengo Batzar Orokorrean bozketan jarri beharko dituen.

Organo pertsonalez

22. art.

- a) Zuzendaritza Batzordeko Lehendakaria Asoziazioaren ordezkaria izango da erakunde publiko eta ofizial, entitate pribatu eta pertsona fisiko nahiz juridiko guztien aurrean. Dagozkion ekintzak egingo ditu Asoziazioaren eskubideen alde, eta notario aurrean, egokitzen diren ahalmenak eman diezazkieke Zuzendaritza Batzordeko kideei, solidarioki edo bereizgabeki, hala nola auzitegietako abokatu eta prokuratzaileei ere, Zuzendaritza-Batzordeak hala xedatu ondoren.
- b) Zuzendaritza Batzorderako deialdia egingo du, eta bilkuretan mahaiburu izango da.
- c) Zuzendaritza-Batzordearen adostasunez, Batzar Orokorrerako deialdiak egingo ditu.
- d) Batzar Orokorretan eta Zuzendaritza-Batzordean eztabaidak zuzendu egingo ditu.

- 23. art.** Lehendakariordeak Lehendakariari lagunduko dio bere funtzioak aurrera eramaten, eta ausentzia, gaixotasun edo hutsune kasuetan, Lehendakariaren ordezkoa izango da.
- 24. art.** Idazkariaren egitekoak izango dira, Batzarrarako gai-zerrenda idaztea, Aktak idaztea, hauek Akta-liburura pasatzea, erabakiei forma baliagarria ematea, bazkideen datu guztiak adieraziko diren Bazkide-erregistroa aurrera eramatea eta dokumentazio-artxiboa egunean izatea. Bilkurara agertuko ez balitz, bertaratutako kide batek ordezkatzeko luke, akta jasotzeko ondoretarako soilik.
- 25. art.** Bokalen egiteko berezia izango da, Zuzendaritza-Batzordeak, Batzar Orokorrak edo Lehendakariak agintzen dietena burutzea. Zuzendaritza Batzordeko beste edozein kide ordezkari dezakete hauen ausentzia, gaixotasun edo hutsunerik balego, Batzordeak hala erabaki ondoren.

III. ATALA

KIDEEZ

26. art.

- a)** EUSKAL FONDOA Asoziazioaren kide izan daitezke, asoziazioaren helburuak bere egiten dituzten (3. Art.), Garapenerako Lankidetzara aurrekontuetako partida finko bat zuzendu (aurrekontuen %0,7 ruz erreferentzi bezala) eta Batzarrean erabakitako bazkide-tz-kuota (15 f art.) ordaintzen duten Euskal Erakunde Lokal guztiak
- b)** Kide berriak onartzea ala ez, Zuzendaritza-Batzordeari dagokio, eta Batzarrak ondoren bere onspena eman beharko du (15 a art. eta 21 i art.).
- c)** Asoziazioan sartzeko eskaria, entitate kidegai bakoitzeko organo eskudunak luzatu beharko du. Eskarian, Batzar Orokorrean entitate hori ordezkatzeko duen pertsonaren izenak agertu beharko du, hala nola Asoziazioaren estatutuak onartzen direnaren adierazpen espresua ere.
- 27. art.** Kide izateari uztea, norberaren borondatez edo Estatutu hauetan zehaztutako betebeharrak ez betetzeagatik izan daiteke. Azken

arrazoi honen erabakia Batzar Orokorraren esku egongo da (15 a art.).

28. art. Honako hauek kideen eskubideak izango dira:

- a) Asoziazioak, bere helburuak lortzeko antolatzen dituen ihardueretan parte hartu.
- b) Asoziazioak beregana ditzakeen abantaila eta onura guztietaz gozatu.
- c) Batzarretan beren ordezkarien bidez hitzez eta botoz parte hartu.
- d) Zuzendaritza Karguetarako beren ordezkarien bidez hautesle eta hautagarri izan.
- e) Asoziazioeko organoek hartutako erabakien berri izan.
- f) Asoziazioaren helburuak hobeto bete daitezen Zuzendaritza Batzordeko kideei iradokizunak egin.

29. art. Honako hauek kideen betebeharrak izango dira:

- a) EUSKAL FONDOAREN hedapenaren eta bere helburuen lorpenaren alde lan egin.
- b) Dagokien guztian, Batzar Okorrorak eta Zuzendaritza-Batzordeak legalki hartutako erabakiak bete.
- c) Asoziazioeko zuzendaritza-organoek egozten dizkieten kargu eta batzordeak onartu eta bertan behar bezala ihardun.
- d) EUSKAL FONDOAREN funtzionamendu gastuetan ekonomikoki laguntzeko konpromezuei erantzun, Batzar Okorrorak adierazitako eran eta kopuruetan.

30. Art. Estatutuak ez bete edo Batzar Orokorraren nahiz Zuzendaritza Batzordearen erabakiak hausteagatik Zuzendaritza Batzordeak kideak zigortu ahal izango ditu.

Zigorak hamabost egunetik hilabeterainoko eskubideen etenatik behin-betiko banantzerainokoak izan daitezke, 32. Art. Aurrikusten den hitzetan.

Horretarako, zigorgarriak izan daitezken jokabideak argitu asmoz Lehandakariak ikerketa bat irekitzea erabaki ahal izango du. Ekintzak Idazkaritzatik zuzenduko dira eta Zuzendaritza Batzordeari

bidezko neurriak hartzea proposatuko dio. Zigorak ezartzea Zuzendaritza Batzordearen esku dago eta doakionari entzun ondoren izango da.

Beti ere zio eta guztikoa izan beharko duen erabaki honen aurka, errekurtoa egin daiteke Batzar Orokorraren aurrean Bazkunei buruzko legedia edo Estatutuen aurkako erabaki eta jardueri kontra egiteko jardunez baliatzearen kalterik gabe. Errekurtoa berrogei egun naturalen barne egin behar da, eskatzaileak kontra egindako erabakiaren edukina ezagutu edo ezagutzeko aukera izan duen egunetik kontatzen hasita.

31. Art. Ondorengo arrazoi bat dela medio, bazkide izateari utziko zaio:

1) Norberak bere borondatez sozietatetik aldentzeagatik.

2) Estatutu hauetatik eratorritako betebeharrak edo Batzar Orokorrek zein Zuzendaritza Batzordeak baliozkotasunez hartutako erabakiak modu larriz, behin eta berriz eta nahita betetzen ez direla-eta, Batzar Orokorrean erabakitako aldentze-zigorragatik.

Bazkideren bat aurreko pasartean adierazitako egoeran balego, Lehendakariak Idazkariari agindu ahal izango lioke aurretiazko eginbideak praktika ditzan, hala, informazioabildu eta, ondorioz, Lehendakariaren esku egon dadin iharduketak artxibatzaea eta 32. Artikuluan aurikusitako moduan zigor-espeditentari edota aldentze-espeditentari hasiera ematea.

Azken kasu honetan, Idazkariak, egintzak egiaztatu ondoren, interesdunari egozten zaizkion karguak jakinarazi dizkio idatziz. Interesdunak 10 eguneko epea izango du bere defentsan egoki deritzona alegatzeko, eta epe hori bete ondoren, nolahani ere, Zuzendaritza Batzordeko lehen bilkuran gai honi heldu egingo zaio eta bidezkoa dena erabakiko, horretarako batzordeko kideen erdia gehi baten quoruma beharrezkoa izanik.

Interesdunari aldentze-erabakia jakinaraziko zaio, egin beharreko lehen Ez Ohiko Batzar Orokorrean erabaki horren aurkako errekurtoa aurkez dezakeenaren berri emanez. Hiru hilabeteren buruan Ez Ohiko Batzar Orokorra deitu ez balitz, eskusiboki, ondorio horietarako deitu beharko litzateke. Bitartean, Lehendakariak erabaki ahal izango luke errudunak bazkide gisa dituen eskubideak bertan behera uztea, eta erruduna Zuzendaritza Batzordeko kide izango balitz, kargu horretan bere ihardunak buru etenaraztea dekretatu beharko luke.

Aldentze-espedientea Batzar Orokorrera altxako balitz, Idazkariak haren laburpena idatziko luke, hala, Zuzendaritza Batzordeak Batzar Orokorrari errudunak aurkeztutako idazkiaren berri eman eta Batzarrak dagokion erabakia hartu ahal izateko egintzen berri zehatza izan dezan.

Aldentze-erabakia, nolana ere arrazoitua izan beharko duena, interesdunari jakinaraziko zaio, eta honek Auzitegietara jo ahal izango du dagokion eskubidea erabilita, erabakia Lege edo Esatatutuen aurkakoa dela iriztean.

IV. ATALA

LAGUNTAILEEZ

32. art.

- a)** 3. artikuluan adierazitako helburuak lortzeko lan egin nahi duten eta Asoziazioari beren laguntza ematen dieten pertsona juridiko, publiko nahiz pribatu guztiak izan daitezke entitate laguntzaileak. Laguntzaile izendapena Zuzendaritza-Batzordeak egingo du, edota Batzarkideen heren baten eskariak.
- b)** Entitate laguntzaileak, diru-ordainketa egin eta urte betez izango dira asoziazioakide, eta baldintza berdinak betez gero, hurrengo urteetan ere jarraituko dute.
- c)** Zuzendaritza Batzordeak zenbait laguntzaileen presentzia eska dezake Aholkularitza Kontseilu baten osaketarako.
- d)** Entitate laguntzaileek, Batzar Orokorrean hitzez bai baina botorik gabe parte hartzea izango dute.

V. ATALA

ONDARE ETA FINANTZEZ

33. art. EUSKAL FONDOA, ECU bateko sorrera-ondarearekin eratzen da.

34. art. Asoziazioak bere iharduerarako erabil ditzakeen baliabide ekonomikoak, honakoak dira:

- a) Batzar Orokorraren erabakiz kide, bazkide edota laguntzaileek ordaindu behar dituzten kuotak.
- b) Erakunde ofizial, entitate edo norbanakoen diru-laguntzak.
- c) Dohaintzak, legatuak edo jaraunspenak.
- d) Batzar Orokorrak finkatutako sarrera-eskubideen edo isurketen zenbatekoa.

VI. ATALA ESTATUTUEN ERALDAKETAZ

35. Art. Estatutuen eraldaketa Zuzendaritza Batzordearen ekimenez, edota izena emandako bazkideen bi herenek hala eskatuta egin ahal izango da. Nolahai ere, Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkideez osatutako Ponentzia izandatuko du, haiek ezarritakoari jarraiki, eraldaketa-proiektua idazteko. Zuzendaritza Batzordeak proiektuaren amaiera-data finkatuko du.

36. Art. Eraldaketa-proiektua finkatutako epean bukatu ondoren, Lehendakariak burutzen den lehen Zuzendaritza Batzordeko gai-zerrendan sartuko du, eta Batzorde honek proiektua onartu ala atzera botako du, Ponentziari itzuli edo azterketa berria egin dezan.

Onartuko balitz, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo Ez Ohiko Batzar Orokorreko gai-zerrendan sartzea erabakiko luke, edota ondorio horietarako Batzarra deitzea.

37. Art. Batzarraren deialdiari Estatutuen eraldaketarako testua erantsiko zaio, bazkideek idazkaritzara egoki deritzoten emendakinak igorri ahalizan ditzaten, eta Batzar Orokorrari emendakin horien berri emango zaio, beti ere bilkura baino zortzi egun lehenago idazkaritzaren esku badaude.

Emendakinak indibidualki nahiz taldeka adierazi ahal izango dira, idatziz egingo dira eta beste testu alternatibo bat proposatuko dute.

VII. ATALA DESEGITEAZ

38. art. Asoziazioak ondoren adierazitako arrazoi baten ondorioz desegin daiteke:

- a) Lege-xedapenez edo Agintaritza eskudunaren ebazpenez.
- b) Espreski ondorio horretarako deitutako Ez-ohiko Batzar Orokorraren erabakiz (16 b art.).

Asoziazioaren desegitea erabaki ondoren, Zuzendaritza-Batzordea Batzorde Likidatzaile bihurtu eta Agintaritza eskudunari horren berri emango dio. Ondare edo baliabideak, edukiko balitu, EUSKAL FONDOA Asoziazioaren helburu antzekoak dituzten erakunde publiko zein pribatuei emango zaizkie dohaintzan.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

LEHENA: Honako hauek EUSKAL FONDOA Asoziazioaren kide fundatzaileak dira:

BERRIZko Udala

LIZARTZAKo Udala

ZALDIBIAko Udala

BIGARRENA: Estatutu hauek legeak onartzen dituenean jarriko dira indarrean.